

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Zerk ikaritzen ditu beldarrak?

AEBETAKO Tennessee-n dagoen Vanderbilt Unibertsitateko Ken Catania biologoak saiakera berezia egin du beldarren inguruan.

Lurra altzairuzko barra batekin gogor jotzean zergatik beldarrak kanpora ateratzen diren jakitea izan da Catania-ren helburua. Orain arte bi hipotesi izan dira aurrekoa azaltzeko: batetik, euri gogorraren pean daudela uste eta ez itotzeko irteten direla; bestetik, beraiek jatera animaliairentzat datorrelakoan ihes egiten dutela.

Ken Cataniak Floridako baso batean egin ditu saiakerak. Egurrezko zutabe bat landatu zuen lurtean, eta altzairuzko barra batekin jo; horrela ikusi zuen ehunka beldar kanporatzen zirela. Aldiz, leku berean ur asko botaz –euri-jasa gogorra bailitzan– beldar gutxi batzuk baino ez zirela irteten ikusi zuen.

Biologoak erabilitako teknika ezaguna omen da nekazaritza munduan. *Diplocardia mississippiensis* izeneko beldar espeziea harrapatzeko eta hain preziatuak diren trufak aurkitzeko erabiltzen da, besteak beste.



Basoak, karbono bahitzaileak

EZTABAIDA ASKO DAGO ekosistemen inguruan. Horietako batek basoak ditu hizpide: zer da hobe, baso bat dagoen-dagonean uztea edo ustiapen lur bilakatzea? Ziurrenez ez dago erantzun bakarra, gauza jakina baita basoek airea garbitzen dutela eta ur garbi iturri direla.

Ohio-ko Unibertsitateko (AEB) Peter Curtis biologoak Michigan-eko iparraldeko basoetan 1999 eta 2005. urteen artean egin-dako neurketen inguruko analisisia plazaratu du. Horren arabera, baso horietan kilometro koadroko 150 kilogramo karbono “bahitzen” da atmosferatik urtero. Datuak estrapolatuz, Michiganeko basoek ia 350.000 tona karbono bahitu dezakete urtero atmosferatik. Inguruan bizi den populazioak, denbora tarte berean, 573.000 tona karbono (225.000 ibilgailuk urtero botako luketena) isurtzen du atmosferara. Beraz, isuritakoaren %62 garbituko litzateke atmosferatik basoen eraginez.



Ordenagailuak esango dizu zenbat urte daukazun

AEBetan –non bestela?– garatzen ari diren programa informatikoari esker, akabo adinari buruzko gezurrak. Software berria pertsona baten adina kalkulatzeko gauza izango da haren aurpegia analizatuz.

www.amazings.com/ciencia/noticias/221008a.html

Glaziarren gainbehera, mikroorganismoen mesede

Planeta berotzeak mesede egiten die batzuei: Peruko Puca glaziarrek urtero 20 metro egiten du atzera, eta agerian geratzen den lurtean mikrobioak oparo hazten dira, zientzialariek behatu dutenez.

www.amazings.com/ciencia/noticias/221008e.html

Kafe kikara bero baten garrantzia

Beroak uste baino eragin handiagoa du gugan. AEBetan egindako esperimentu batean ikusienez, gure iritziak aldatu egiten dira eskuetan dugun kafearen tenperaturaren arabera. Zenbat eta beroago, jatorrago iruditzen zaigu aldameneko laguna, esate baterako.

<http://ttiki.com/1196>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16